

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	- Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. - Hiru irakurgai eta guztira 34 item. - Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. - Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. - Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez.	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuretzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

KONTSUMO TALDEAK

Baserritarraren eta kontsumitzailearen artean harreman zuzena sortu eta, horren ondorioz, lehenengoak bere produktuak saltzea eta bigarrenak kalitateko janariak eskuratzea da EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) sindikatuaren eta Biolur elkartearen bidez sortutako kontsumo-taldearen helburua. Betetzen ari den helburua.

Euskal Herrian martxan dauden kontsumo-talde guztiek ez dute berdin funtzionatzen. Kasu batzuetan baserritarrak etxez etxe egiten du banaketa, eta Interneten saltzen dutenak ere badaude; baina ohikoa da toki eta ordu jakin batean baserritarra eta bezeroa biltzea, azken honek asteroko janari-poltsa har dezan. EHNEk eta Biolurrek Gipuzkoan martxan jarritako *Basherri* izeneko sareak horrela funtzionatzen du, baina garbi izan behar da kontsumo-talde hauek ez direla saldu-erosi operaziora mugatzen; bestelako filosofia dago atzean.

Dagoeneko berrogei taldetik gora ari dira *Basherri* ekimenean. Baserritarren zeregin nagusia barazkiak, frutak, ogia, arrautzak, esnea... ekoiztea da, sasoian sasoiko produktuak. Bezeroarena, hileroko kuota bat ordaintzea eta horren truke asteroko janari-poltsa jasotzea. Ez dago bitartekaririk, elkarren arteko harreman zuzena baizik. Gainera, oso lasai joan daitezke bezeroak baserrira baratzean zer egiten ari diren ikustera, eta lanean laguntzera ere bai. Oso inportantea da zer jaten dugun jakitea, nola hazi diren porruak edo kalabazinak. Kasu askotan, gure familietako gurasoek badakite nolakoak diren baratzeak, baina seme-alabek ez dute inoiz lurra lantzeko tresnarik ikusi. Bada, horixe da kontsumo-taldeek eskaintzen duten aukera: bertako produktuak jatea ez ezik, nondik iritsi diren mahaira eta nola ekoitzi diren ere jakitea.

Kontsumo-taldeko kide izateak ohitura-aldaketa dakar ezinbestean. Izan ere, hipermerkatuan erostera ohituta daudenentzat, ez da harritzekoa, esate baterako, neguaren erdian tomateak aurkitzea dendako apaletan. Baina Euskal Herrian ez da tomaterik hazten neguan,

eta urtarrilean ez dituzte topatuko beren baserritarraren poltsan. Bai, ordea, garaiko produktu fresko eta osasuntsu asko.

Beasaindakontsumo-taldehauek funtzionatzen duten herrietako bat. Asteartero, arratsaldeko zazpitan, Gorka Sasietak, Jesus Leundak eta Aitor Aranburuk haien furgonetak aparkatzen dituzte pilotalekuaren ondoan. Ordurako zain egoten dira kontsumo-taldeko bezeroak eta di-da batean hartzen ditu bakoitzak aste osorako janariak. Bezero horien artean dago, esaterako, Tolosako Fronton jatetxeko Roberto Ruiz sukaldari ezaguna. Barazkiez gain, sagardoa, sagar-zukuak, babarrunak, intxaurrak, jogurtak, arrautzak, gazta eta abar banatzen dituzte hiru baserritarrok. Zumarragan eta Urretxun ere badago kontsumo-taldea, *Altzaporr* izenekoak, eta han astelehenetan egiten da banaketa. Barazki-saskia 10 euro ordaintzen da, baina handiagoa nahi izanez gero, 15 eurokoa jasotzeko aukera ere badago. Taldean erabakitzen da saskiaren osaketa eta berdinak dira taldekide guztientzat. Ordainketa hileroko egiten da, eta kuota 43,5 eurokoa da saski txikiaren kasuan, eta saski handiaren kasuan 65 eurokoa. Hasierako proba-epea bi hilabetekoa da, eta jarraituz gero, urtebeteko konpromisoa hartzen du bezeroak.

Goraka doan mugimendua da kontsumo-taldeena. Gipuzkoan ezin dituzte eskaera guztiak ase, baserritarrak falta baitira. Horregatik, ekoizle gehiagoren bila ari da EHNE herriz herri. Oraindik badaude lursailak Gipuzkoan. Haziak eta lanerako gogoak besterik ez da behar. Jakina, baratzea ondo planifikatu behar da, soberakinik ez egoteko eta bezeroari kale ez egiteko. Beraz, merkataritza duina eta baserriaren garapen iraunkorra bultzatzeko tresnak dira kontsumo-talde hauek. Hala ere, EHNEren datuen arabera, Euskal Herrian kontsumitzen diren hamar barazkitik bederatzi kanpotik ekarritakoak dira.

ARANBURU, Gotzon. Naiz. 2012ko azaroaren 24a.
Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zein da kontsumo-taldeen helburua?

- a) Salerosketa-harremanak erakunde publikoen bidez izatea.
- b) Salerosketa-harremanak kontsumitzaileen elkartearen bitartez izatea.
- c) Salerosketa-harremanak inolako bitartekaririk gabekoak izatea.

2. Nola funtzionatzen dute kontsumo-taldeak?

- a) Guztiek modu berean, ohikoena baserritarra eta bezeroa biltzea baita.
- b) Guztiek ez dute modu berean funtzionatzen, baina lehen kontaktua Internet bidez da beti.
- c) Kasu desberdinak daude, haien artean etxez etxeko banaketa.

3. Produktuez gain, zer beste aukera eskaintzen diote bezeroari kontsumo-taldeak?

- a) Produktuak nola landu diren eta etxera nola heldu diren jakitea.
- b) Produktuak lantzen ikastea eta baratze propioa izatea.
- c) Produktuak nondik iritsi diren eta mahaian nola jan behar diren jakitea.

4. Zer dakar kontsumo-taldeko kide izateak?

- a) Kontsumo-ohituretan nahitaezko aldaketa.
- b) Erosteako ohituretan aldaketa, baina kontsumo-ohituretan aldaketarik ez.
- c) Ohituretan aldaketa, urte osoan produktu guztiak jateko aukera baitago.

5. Zerez osatuta daude barazki-saskiak Zumarragan eta Urretxun?

- a) Kuotaren arabera bezeroak erabakitako produktuez.
- b) Baserritarrek erabakitako produktu desberdinez.
- c) Taldeak erabakitako produktu berdinez.

6. Zenbat denborarako konpromisoa hartzen du bezeroak Zumarragan eta Urretxun?

- a) Urtebeterakoa edozein kasutan.
- b) Urtebeterakoa, hasierako proba gaindituz gero.
- c) Hasieran urtebeterakoa da eta gero bi hilabeteko luzapena dago.

7. Orain, zer arazo dute kontsumo-taldeak?

- a) Ezin diete eskari guztiei erantzun baserritar faltagatik.
- b) Bezero falta dute, kontsumoak gora egin arren.
- c) Ekoizleak eta bezeroak falta dira herri batzuetan.

8. Nongoak dira hemen jaten ditugun barazkiak?

- a) Kontsumo-taldeetan landutakoak.
- b) Gehienak Euskal Herritik kanpo landutakoak.
- c) EHNE sindikatuko baserritarrek landutakoak.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (9, 10, 11...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

IRUZURRAK UGARITU EGITEN DIRA INTERNETEN OPOR GARAIA

Bidaia egiteko eskaintza tentagarriak iruzurra izaten dira askotan Interneten. Hori dela eta, kontsumitzaileen elkarteek uda honetan salaketek gora egin dutela adierazi dute.

Gero eta gehiago kontsumitzen dute erabiltzaileek Interneten eta turismoa izan da esparru horretan arrakasta gehien lortu duen sektorea. **9**

Ostatu hartzeko eskaintza erakargarriak eta bidaiatzeko txartel merkeak dira sarean topatu ditzakegun tentazioak, baina fidagarriak al dira?

Oporretarako apartamentu bat alokatzean izaten dira, gehienbat, iruzurak. **10** Kontsumitzaileak askoz ere babes txikiagoa du Interneten eta, hori dela eta, ezinbestekoa da etxea alokatu aurretik argazkiak eta lekuari buruzko ezaugarriak eskatzea, salaketa egin behar izanez gero, dokumentazio hori behar izango baita. **11**

Delituak dira, dirua irabazteko asmoa dagoelako; eta, hortaz, engainatu bagaituzte, lehenik eta behin polizia-etxe batean edo guardiako epaitegi batean salaketa jarri behar da, baina beti jatorrizko herrian.

12 Maiatzean, Tortosan (Tarragona) bizi zen Pedro Marti Alcantarak bere web-gunean bidaia kontratatu zuten pertsonen mezu elektroniko bat bidali zien. Mezu horretan budisten festa batengatik gestioak atzeratu beharko zituela adierazi ondoren, web-gunea itxita zegoela esan eta desagertu egin zen. Guztira, 700.000 euro baino gehiagoko iruzurra egin du Martik. **13** Martik eta emazte tailandiarrek merkatuko preziorik merkeenak eskaintzen zituzten, baina zerbitzua ez zen fidagarria.

Azkenaldian Interneten aipatzen ari den beste iruzur bat *Turypeople* web-gunearena da. Hainbat ataritan iruzkin onak irakur daitezkeen arren,

gero eta erabiltzaile gehiago ari dira iruzurra salatzen. **14** Web-guneko langile batekin harremanetan jarri eta bazkidea izateko ordainketa egin ondoren, bazkideak gida bat jasotzen du etxean, baina erreserbak egitean, gidako eta web-guneko eskaintzak ez datoz bat. Bezeroaren arretarako telefonoan eskaintza egin dien komertziala nor den ez dakitenez, laguntzeko aukerarik ez dagoela adierazten diote eta gidakoa onartu behar dute.

Bestalde, Interneten kontratatutako hegaldiei dagokienez, gomendagarria da maleten eta eserlekuaren erregistroa eta fakturazioa sarearen bidez egitea. Izan ere, dirudienez, aire-linearen batek sal ditzakeenak baino txartel gehiago saldu ditu. **15**

Ezinbesteko arrazoiengatik ez bada (eguraldi txarra, adibidez), aire-linea da bidaiariak izan ditzakeen kalteen erantzulea. **16**

Interneteko konpainiek erreklamazioak ordaintzea nahiko zaila izaten da, baina erabiltzaileen elkarteek kontsumitzaileen eskubideak betetzea eskatzearen garrantzia nabarmentzen dute.

<eitb.com>, 2011ko abuztua. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- A. Uda honetako kasurik ezagunenetakoa *Siente Tailandia* web-gunearena izan da; izan ere, iruzur horrek 1.000 pertsonari egin die kalte.
- B. Horregatik, kontsumitzaileak helmugara iristeko konponbidea eskatzeko eskubideaz gain, konpainiak kalte-ordaina ordaindu behar dio.
- C. Kontsumitzaileak etxea benetan alokairuan utzi dion pertsonarena dela konprobatu behar du, hori frogatzen duten dokumentuak lortuz.
- D. Gauzak horrela, gure oporrak antolatu baino lehen ezin dugu ahaztu ohiko bideak seguruagoak direla Interneteko iruzurrak saihesteko.
- E. Kaltetunetako batzuek 300 euro galdu dituzte; beste batzuek, berriz, bidaiia osoa erosi zutenez, 1.200 euro.
- F. Hala ere, kontu handiz ibili behar da sarean, gero eta iruzur gehiago egiten ari baitira Interneten saldutako bidaietan.
- G. Horrez gain, hasieran ez da dirurik bidali behar eta, eskatzen badigute, ohiko ordainketa-bideak erabiltzea gomendatzen dute, bertan agertuko baita zer alokatu dugun eta zenbat denborarako.
- H. Dirudienez, web-guneko kide egiteko, kontsumitzaileek 100 euro ordaintzean, bidaiia-txartelak eta ostatua hartzeko eskaintza bereziak lortzeko aukera dute.
- I. Hau da, fakturatzeko konpainiak hegaldia beteta egonda, bidaiariari beste hegaldi batean jarriko dutela adieraz diezaioke.

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ERREZETEN ORDEZ, IBILBIDE OSASUNTSUAK

Tolosako Udalak antolatutako *Tolosa kale biziak* ekimenaren barruan dauden printzipioetako bat kaleak **17** eta bizitzeko esparru moduan ulertu behar direla da. Horretarako, Udalak hainbat ibilbide osasuntsu aukeratu, **18** eta markatuko ditu herritarrok erabili ahal izateko. Gune horiek, espazio publiko horiek, erakargarriak izatea ezinbestekoa da urbanismo inklusibo bat garatzeko eta **19** izateko.

Horrela, kaleak herrikoek bertan egin ahal dituzten ibilbideen bidez, ohitura eta bizi osasuntsuagoa izateko tresna ere badira. Gero eta zaharrago den **20** batean bizi gara eta gero eta garrantzi handiagoa du **21** ohitura osasuntsuak garatzeak, horrek zahartzaro hobia eta, **22**, duinagoa edukitzeko aukera ematen baitu.

Horrenbestez, aipatu bezala, Tolosako Udalak familiako medikuekin eta osasun-arretako anbulatorioekin egingo du lan, bertako medikuek ibilbide hauek egitea **23** baitiete herritarrei. Horrela, botika eta pilulak errezetatzetik ibilbideak errezetatzera pasatuko da. **24**, herriko kaleetan zailtasunaren arabera markatuko diren ibilbideak egitea gomendatuko zaie herritarrei. Modu horretan, zahartzaro duin, aktibo eta hobia izaten lagundu nahi zaie. Hori guztia aurrera ateratzeko, ekimen honen **25** izan daitezkeen kolektiboekin lan egin nahi da eta beraiek gustuko dituzten edota erabiltzen dituzten ibilbideak **26** nahi dira. Ibilbideok distantzia eta mota desberdinetakoak izango dira, eta aldaparen eta distantziaren **27** kolore desberdinez margotuko dira.

Proiektu honek bi fase ditu. Lehenengoan, ibilbideak erabiltzaileekin adostuko dira eta, ondoren, markatuko diren ibilbideetan paseatzea errezetatuko da osasun-arretako **28**. Horrekin batera, bigarrenean, ohitura osasuntsuekin jarraituz, ariketa fisiko **29** egiteko tresnak jartzea ere aurreikusten da. Profesionalek, **30** honetan medikuek, adierazten dituzten tresnak jarriko dira ibilbideetan, herriko jendeak ibili ez ezik, bestelako ariketak ere egin ditzan. Erabiltzaileekin ere adostuko da **31** jarri tresna horiek leku horietan.

Proiektu honen **32**, zahartzaroa, osasuna, zaintza eta bizi-kalitatea uztartu nahi dira. Egitasmoak hiru hanka nagusi ditu: Udala, Osakidetza eta herriko eragileak. Orain, proiektua martxan jartzeko, herriko eragileei dei egingo zaie hilaren 16an, kultura-etxeko areto nagusian egingo den **33** parte hartzeko. Bertan, Osakidetzak emandako gomendioak eta markatutako irizpideak kontuan hartuta, ibilbideak **34** dira. Hori dela eta, Udalak argi du eragile eta herritarren inplikazioa ezinbestekoa izango dela proiektu honetan, ibilbideak ahalik eta jende gehienak erabiltzeko diseinatu nahi baitira.

<tolosakoudala.net>, 2014ko ekaina. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- 17.a) topagune
b) pasabide
c) indargune
d) bitarteko

- 18.a) jaso
b) egokitu
c) kokatu
d) sortu

- 19.a) erabiliak
b) erabatekoak
c) premiazkoak
d) ezinbestekoak

- 20.a) gizarte
b) adin
c) bizileku
d) ingurumen

- 21.a) gainerakoan
b) bestelakoan
c) bizitasunean
d) egunerokoan

- 22.a) horretarako
b) batez ere
c) berriz
d) esaterako

- 23.a) asmatuko
b) bultzatuko
c) adostuko
d) aholkatuko

- 24.a) Hala ere
b) Baita
c) Ordea
d) Hau da

- 25.a) egileak
b) emailak
c) hartzaileak
d) ekoizleak

- 26.a) banatu
b) igaro
c) astindu
d) osatu

- 27.a) aldean
b) moduan
c) arabera
d) antzean

- 28.a) eskabideetan
b) guneeetan
c) iragarkietan
d) eskaintzetan

- 29.a) zailak
b) ezjakinak
c) korapilatsuak
d) arinak

- 30.a) saio
b) atal
c) kasu
d) joera

- 31.a) norako
b) zertarako
c) non
d) zergatik

- 32.a) artean
b) bitartez
c) zehar
d) ondorioz

- 33.a) erakusketan
b) bileran
c) lehiaketan
d) prozesuan

- 34.a) zehaztuko
b) bermatuko
c) baztertuko
d) konponduko

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Administrazioko langilea zara eta txandaka lan egiten duzu. Urteetan ez duzu lanean inolako arazorik izan, baina pasa den hilabetean langile berri bat hasi zen hurrengo txandan lanean.

Langile hasiberriarekin arazoak besterik ez duzu: bulegoko ordena, lan batzuk bukatu gabe, ordutegia... Berarekin egoera konpontzen saiatu zara, baina berdin jarraitzen du. Horregatik, zuen arduradunari gutun bat idaztea erabaki duzu arazoa azaltzeko eta irtenbidea eskatzeko.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Udalak zahar-etxe berria eta modernoa eraiki nahi du herrian, baina herritar batzuen ustez, hobe da eguneko zentro bat zabaltzea eta etxez etxeko arreta zerbitzua indartzea, gizarte-langile gehiago kontratatuz.

Herriko aldizkarian zure iritzia ematea erabaki duzu.

Horretarako, azaldu zein den herriko adinekoen egoera eta esan, zure ustez, proposatzen diren bi bideetatik adineko horien beharrak asetzeko onena zein den eta zergatik.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua


The logo consists of the letters 'IVAP' in a bold, magenta, sans-serif font. A thin, grey, horizontal brushstroke underline is positioned directly beneath the letters.

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Kontsumo taldeak»

1.	C	2.	C	3.	A
4.	A	5.	C	6.	B
7.	A	8.	B		

■ **2. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ **Irakurgaia:** «Iruzurak ugaritu egiten dira interneten opor garaian»

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	F	C	G	A	E	H	I	B

Soberakoa	D
-----------	---

■ **3. ariketa:** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «Errezeten ordeztu, ibilbide osasuntsuak»

17.	A	18.	B	19.	A
20.	A	21.	D	22.	B
23.	D	24.	D	25.	C
26.	D	27.	C	28.	B
29.	D	30.	C	31.	C
32.	B	33.	B	34.	A